

Guggenheim Bilbao Museoaren papera Bilboren eraldaketan

Ikaslea: Nahia Esnaola Lizarralde
Tutorea: Haizea Barcenilla Garcia
Artearen Historia
Artearen eta Musikaren Historia saila
2021-2022

Laburpena

1970. hamarkadako krisialdi ekonomikoak aldi industrialaren amaiera ekarri zuen, eta hiriek egoera berrira egokitzeko hirugarren sektorean oinarrituriko plangintzak jarraitu zituzten. Hauen artean Bilbo aurkitzen zen, gainbehera ekonomikoak beste faktore batzuekin batera endekapenera eraman zuen hiria. Bilboren itxura aldatzeko eta zerbitzuetan oinarritutako ekonomia martxan jartzeko egitasmoen artean, Guggenheim Bilbao Museoa izan zen nabarmenena, eraldaketa ekonomiko, sozial eta urbanoa ekarri zuena.

1991an sinatu zen azken hitzarmena eta 1997ko urrian ireki zen Guggenheim Bilbao Museoa. Bere ezaugarri garrantzitsuetariko bat eraikina bera da. Hiriaren ikur bihurtu zen eta bide batez, honen eraikuntzak desindustrializazioarekin batera funtzioa galdu zuen eta gainbeheran gelditu zen auzo baten eraldaketa ekarri zuen.

Negoziaketetan, Guggenheim Fundazioak bere neurriak inposatzea lortu zuenez, museoaren kudeaketa eta edukiak enpresa estatubatuarraren eskuetan gelditu ziren, euskal artista eta panorama lokalak pairatu zituzten egoera hauek. Museoaren funtsetatik ikusten da instituzioak helburu kulturaletaz gain beste batzuk ere badituela, funtzio kulturalak ekonomiko eta politikoen menpe egotea eragiten duena. Hortaz, garai postindustrialean gertatzen den joera hau, kulturaren erabilera ekonomiko eta politikoa, errekurtso bihurtzen da. Aldi berean, kultura sustatzen duten instituzioek dituzten nahien arabera, eredu kultural mota bat bultzatzen da. Guggenheima ekonomikoki errentagarriena denaren baitan koka daiteke, gehien sustatzen dena, baina kultura eta klase sortzaileari zein gertuko testuinguruari hainbat kalte ekartzen dizkiona.

Kultura modelo honetan erakusketa funtzioa gailentzen da, bisitariak erakartzen dituena museora eta hirira. Hortaz gain, sortzaileei eta haien emaitza artistikoei parametro zurrun batzuk ezartzen dizkie, klase sortzailearen aniztasunetik zati murriztu bat soilik sartzen delarik neurri hauetan. Gainera, eredu hau denez errentagarriena, bestelako modeloak, zeinek testuinguruarekin harreman handiagoa izaten duten, ekarpen sozialak egiten dituzten eta artisten arteko sareak elikatzen dituzten, ez dira nahikoa bultzatuko sortzaileen praktika eta jarduerak bermatzeko. Honen ondorio da, Guggenheim Bilbao Museoan erakusketak egiteko publiko masa handi bat erakarri behar izatea, eta artistak parametro ekonomikoen bidez baloratuko direla; gainera, Estatu Batuetatik ekarritako museoa izanda testuinguruarekin

harreman txikia erakutsiko du. Bestetik, museotik at gelditzen diren artistek egoera prekarioak pairatzen dituzte, eredu kultural errentagarriena indartzean, besteak alde batera gelditzen direlako.

Museoaren ondorioek artistez gain hiriko biztanleei ere eragiten diete. Hirugarren sektorean oinarrituriko ekonomia honetan, turismoak garrantzia handia du, eta hiria zein Guggenheima bezalako museo bat kontsumitu daitekeen esperientzian bihurtzen da. Museoak auzoari ekarri zion eraldaketa fisikoaz gain, artistentzat ere egokia zen testuinguru bat sortu zuen, balio sinbolikoa ekarri ziolarik. Honek aldi berean, inguruko lurraren prezioa igotzea ekar dezake, negozio handi bat dena, baina bizilagunentzat arazo bat suposatzen duena, hiriko zerbitzuak eta espazioak turistei eskainiko zaizkielako, gentrifikazioan amaitu daitekeen gertaera.

Aurkibidea

1. Sarrera	2
2. Testuingurua: Hiri industrialetik postindustrialera	5
3. Guggenheim Bilbao Museoa proiektua	10
3.1. Prozesua eta helburuak	10
3.2. Eraikina eta hiria	13
3.2.1. Urbanitate forma berriak	14
3.2.2. Estetizazioa eta eraikina ikono bezala	14
3.3. Globalizazioa eta lokala	15
4. Kultura kontsumo-produktu	17
4.1. Guggenheim Bilbao Museoa eta ekosistema kulturala	18
4.2. Gentrifikazioa	22
5. Ondorioak	25
6. Bibliografia	27
6.1. Hemeroteka eta webgrafia	29

1. Sarrera

Lan honen helburua Guggenheim Bilbao Museoak gizarteko alderdi ezberdinetan izan dituen eraginak aztertzea da. Museoak arte instituzio bezala eta estrategia plangintzetako funtsezko pieza izanik, hiriaren izaeran, bertako bizitzan eta kulturak izan duen erabileran aldaketa bat suposatzen du.

Lan honen jatorria museo eta bestelako agente kulturek ekar dezaketen gentrifikazioaren inguruko kezkan aurkitzen da. Hasiera batean, prozesu hau gaitzat hartzea pentsatu genuen Bilbo adibide moduan hartuz. Honen oinarrian bi ideia nagusi aurkitzen ziren. Batetik, hiriaren inguruko arazoak eta bestetik, arte instituzioek duten ardura, eta nola harremantzen diren haien inguruarekin. Nahiz eta badauden hau gertatu dela defendatzen duten autoreak, ez dago Bilbon prozesu hau jazo dela ikertzen duen lan zabalik, artikulu motz eta aipamen soiletatik haratago. Izan ere, auzoetako bizilagunen kanporatzerik egon ez den arren, auzoen izaera ekonomikoa aldatu da, batzuen ustez gentrifikazioaren joera berrienaren ezaugarria. Gainera, eraldaketa honen arrazoiak kulturalaz gain beste batzuk ere izan daitezke, gaia beste jakintza-alor batzuetara zabaldu zezaketenak. Horregatik, honako fenomenoaz aztertu beharrean, gaia era irekiago batean hartzea erabaki genuen, hau da, Guggenheim museoak bezalako kultura instrumentu batek nola eragiten dion inguruari. Zerbitzuetan oinarrituriko hiriak aurrera egin zezan, kulturak izan zuen erabilera ekonomikoa, eta turismoa bezalako merkatu berri baten ustiapena emateko eraikitzen joan ziren hiri kulturala, non Guggenheim Bilbao Museoak paper nagusia duen.

Lana hiru ataletan dago banatuta. Lehenengoa, museoak zein testuingurutan sortzen den azaltzera bideratuta dago. Instituzioak hirian duen funtzioa Bilboren garapenari lotuta dagoenez, beharrezkoa da ulertzea zerk ahalbidetu duen honelako proiektu baten beharra. Hau da, 1970. hamarkadako krisialditik datorren joera internazionala, zeinek hiria hirugarren sektorerara bihurtzea ekarri duen. Ondoren, egitasmo honen oihartzunak noraino iristen diren ikusteko, museoaren hastapenetatik, bere helburuak zeintzuk diren zehaztea ezinbestekoa da, honen bidez hartutako erabakien zergatia ulertzeko. Aldi berean, proiektuak bere ondorio propioak izan ditu, hala nola, hiriaren aldaketa fisikoan eta ekonomikoan. Eta eragin kulturei dagokienean, kultura estatubatuarren eta lokalaren artean ezartzen den harremana landu dut. Azkeneko zatian, Oihane Sánchezen tesia jarraituta, eredu kultural honek ekar

ditzakeen ondorioak aztertu ditut, kulturen eragiten duten agente ezberdinen arteko harremana; eta aldi berean, honek panorama artistikoaren aniztasunari zein leku ematen dion museoaren baitan eta honetatik kanpo. Baita auzoak berak jasan duen aldaketa ere, eta joera hauek sor ditzaketan ondorioak.

Honen baitan, museo estatubatuarrek ekarri duen hiriaren itxura berria eta bestelako ekarpen positiboen inguruko bibliografia askorekin aurkitu banaiz ere, gehiengoak gauza berdinak esaten zituen, ekarpen gutxi egiten zutelarik. Hortaz gain, eta aurkitutako zein erabilitako bibliografiari erreperatuta, nabaria da Guggenheim “efektuaren” onurak oso finkatuak daudela iritzi publikoan, testu hauen argitalpen datak askotan museoa ireki eta lehen urtetakoak baitira, eguneratuenak erabiltzen saiatu naizen arren. Hau da, autore gutxi jarri izan dituztela zalantza ideia hauek. Beraz, egitasmoaren ondorioak era kritikoago eta sakonago batean aztertzen dituzten lanekin topatzea zailagoa egin zait.

Lanean garrantzia izan duen bibliografiako bat Joseba Zulaika eta Anna Maria Guaschen *Aprendiendo del Guggenheim* da, 2007an argitaratutakoa. Liburu honek politikari, museografia eta kultura adituen iritziak biltzen ditu, egitasmoa era positiboago zein negatiboagotan lantzen dutenak. Bestetik, aipatu bezala, Oihane Sánchez Duroren 2020ko tesia ere nabarmen baliagarria egin zait, *Análisis de la producción y la programación en las prácticas artísticas contemporáneas; en busca de una producción sostenible en la CAV de las políticas culturales basadas en la idea de monocultivo a la diversidad de formatos híbridos* deiturikoa. Autoreak ekosistema kultural orekatua egon dadin, kultura eredu aniztasuna proposatzen du, eta horretarako, Euskal Autonomia Erkidegoan aurki daitezkeen proposamenak eta hauen antolaketa formak zein ondorioak aztertzen ditu. Honen baitan, Guggenheim Bilbao Museoak indartzen duen eredu aurkitzen da, “monocultivo” edo monolaborantza deiturikoa, zeinek kulturaren homogeneizazioa ekartzen duen, artista eta arte mota zehatz bat bultzatzean. Guggenheim Bilbao Museoa eta Bilbok jarraitzen duen hiri modelo aztertzeaz gain, hauek izan ditzaketan emaitzak ere ikertzen ditu egileak, Gradu Amaierako Lanaren garapenean lagungarri aurkitu dudana.

Iñaki Estebanen *El Efecto Guggenheim. Del espacio basura al ornamento* liburua, hau ere 2007an argitaratua, oinarritzko irakurketa bat dela esan daiteke gai honen lanketan. Aipaturiko bibliografia osatzeko, beste artikulatu batzuk ere erabili ditut gaia zeharka landu edo beste

perspektiba eta aztergai batzuetatik abiatu direnak, urbanismotik eta kultur politiketatik adibidez.

Lanaren prozesu honetatik ateratako ideiak sendotzeko edo kontrastean jartzeko baliagarriak izan dira museoak eskainitako errekursoak. Batetik, diskurtso ofiziala, Bilboko instituzioaren zuzendari denak idatzitako testua den bezala, 2000koa eta museoaren helburuekiko eta funtzioekiko oso argia dena. Eta bestetik, museoaren web-orrialdea, nik erakusketak aztertzeke erabili dudana.

Azpimarratzekoa da gaia diziplina ugariatik jorratu daitekeela, eta askotatik ikertzen jarraitzea falta den arren, besteak beste gentrifikazioa edota era sakonago batean euskal artistek museoan duten papera eta presentzia, zein kanpoan erantzun bezala eragiten dituen arte adierazpen kritikoak; ahal dudan heinean museologian ardatz bihurtu den kasu honen albo-kalteak aurkezten saiatu naiz.

2. Testuingurua: Hiri industrialetik postindustrialera

XIX. mendearen amaieran Bilboren industrializazio azkarraren ondorioz, Bilboko itsasadarrak eta hiriak berak aldaketa demografiko eta urbano bortitzak pairatu zituzten. Prozesu honek ez zuen hazkunde ekonomiko soila ekarri, baizik eta gizartearen berrantolaketa ekonomiko-soziala eragin zuela¹. Inguru honetan ireki ziren fabrika eta meatzeek langileria klase zabal baten kontsolidazioa suposatu zuten, honek dakartzan arazo eta modernizazioarekin. Demografiaren hazkunde eta berrantolaketak bere isla izan zuen hiriaren alde fisikoan ere, dinamika ekonomiko berriaren menpe egongo zena konfiguratu. Izan ere, 1877an Bilboko itsasadarrak 62 417 biztanle bazituen, lehen eta bigarren industrializazioen ondoren, 1975ean 450 768 izatera pasa zen; Euskal Autonomia Erkidegoaren demografiaren hazkundearen %48,3a suposatzen du honek².

1950etik aurrera industrializazioa beste eremuetara zabaldu bazen ere, gune honen nagusitasuna mantendu zen. Bilboko itsasadarren inguruan aldaketa urbanistiko sakona artikulatu zen XIX. mende bukaeran. Hirigintzako plangintza zabalguneari mugatuta zegoen, Achúcarro, Alzola eta Hoffmeyerrek diseinatu, nahiz eta gero, denboran luzatu zen bitartean aldaketak izan zituen. Gainontzeko espazioak, langileriarenak, era neurrigabeen eta bat-batean eraikitzen ari ziren ostera³. 1940rako errenta altuko taldeak ibaiaren eskuinaldean kokatzen ziren batez ere; klase ertainak hiribilduaren barruan; eta maila baxueneko langileria ezker aldean eta Bilboko Elorrieta, Abando, Bilbo Zaharra eta batez ere, Bolueta eta Zorrozan⁴. Garai honetatik beraz, metropolian eta Bilboko auzoetan gertatzen ari zen segregazioa argi gelditzen da.

Bilboaldea ez zen gai izan industriak erakarrirako inmigrazioaren fluxu handiak jasotzeko. 1958an Francok Erakustazokaren inaugurazioaren aitzakipean hiria bisitatu zuenean, txabolismoari aipu egin zion, lehendik zetorren arazoa zen arren. Urte baten baitan, 1959an, Plan de Urgencia Social para Vizcaya gauzatu zen, non 50 000 etxebizitza eraikitzea

¹ BEASCOECHEA, José María. “Jerarquización social del espacio urbano en el Bilbao de la industrialización”, *Scripta Nova*, 7. zk., 2003, 2. or.

² GONZÁLEZ, Eduardo ed.. *La consolidación de la metrópoli de la Ría de Bilbao. Vol. I. Segunda industrialización, inmigración y capital humano*. Bilbo: Fundación BBVA, 2009. 33. or.

³ GONZÁLEZ, Eduardo ed.. *La consolidación de la metrópoli de la Ría de Bilbao. Vol. II. Segunda industrialización, inmigración y capital humano*. Bilbo: Fundación BBVA, 2009. 25. or.

⁴ *Ibid.*, 48. or.

aurreikusten zuten bost urtetan Bizkaian. Plan honen baitan, Otxarkoaga auzoan 3 672 etxebizitza eraiki ziren⁵.

Nolanahi ere, urte batzuen buruan hazkunde negatiboa hasi zen. 1973an, Lurralde Petrolio Esportatzaileen Erakundeak eragindako petrolioaren prezio igoerarekin krisi ekonomiko sakonean sartu ziren mendebaldeko herrialde industrializatuak. Izan ere, mendebaldeak Israelen alde jokatzegatik, erakunde honek estatu hauei petrolio gehiago ez saltzea erabaki zuen, eta kontuan izanda iparralde globalak Bigarren Mundu Gerratik petrolioarekiko zuen menpekotasuna, lehengai honen prezioa igo zen, inflazioa ekarri zuelarik. Espainian ez zen 1975era arte nabaritu, hazkunde ekonomikoaren joera luzatu baitzen era artifizialean Francoren heriotzera arte⁶. Beranduago heldu bazen ere, estatu osoak eta zehazki Bilbo Handiko industriak jasan zuen beherakada ekonomiko hau. Honen ondorio zuzenak izan ziren egitura industrialen kalte handia eta metalurgia, ontzigintza eta industria kimikoko lanpostuen suntsiketa. Nahiz eta krisia sektore ezberdinetan igarri zen, Ezkerraldean, non ekonomia industria astunean oinarritzen zen, langabezia tasen gorakada bereziki larria izan zen. Hain zuzen ere, 1985era arte etengabe igo zen langabezia indizea Bilboko metropoli eremuan, zehazki, industria-langabeziaren %82,2a kontzentratzera iritsi zelarik⁷. Bestalde, krisiak berak indartuta eta trantsizio demografikoagatik, jaiotze tasak jaitsi egin ziren, gizarte gero eta zaharrago bat mantendu beharko zelarik ondorengo hamarkadetan. Industria politikak hartutako erabakien akatsez gain, eta mundu mailan erasan zen krisi ekonomikoaz gain, Bilbo Handiaren gainbehera indartu zuten beste faktore batzuk badaude. Bada, Diktadura luze baten aztarnak, garai honen osteko errepresio gogorra eta indarkeria giroa⁸, bestelako zehaztapen sozialetan sartu gabe. Euskadi, bere ekonomiaren nukleoa jarraituta, joera berean murgildu zen.

Honi gehitu behar zaio, ondorengo urteetan ere, hainbat enpresa itxi zirela, eta bigarren sektoreari ez ezik, 1983ko uholdeek, Bilboko alde zaharrean bereziki, ondorio larriak izan zituztela, enpresa txiki eta ertainen ia herenak itxi behar izan baitzuen. Orokorrean, hiria eta bertako azpiegitura eta garraioek jasandako kalteak egoera are eta gehiago okertu zuten. Azken finean, gertaera guzti hauek, eredu fordistaren hondoratzearekin batera, ziklo berri bat

⁵ Ibid., 66. or.

⁶ LARRINAGA, Carlos. "Regeneración urbanística y nuevas opciones turísticas de las ciudades post-industriales: el caso de Bilbao", *TST*, 21. zk., 2011, 58. or.

⁷ Ibid., 58-59. orr.

⁸ Ibid., 59. or.

ekarri zuten, edo hobeto esanda, ziklo berri baten erakusle ziren. Produzitzeko, kontsumitzeko eta harremantzeko era berriek beste gorpuzte bat izango zuten, modernitateak hiri industrialak izan zuten bezala, eta eredu hau bere azkenekora heldu zen bezala, hiri industrialek ere behea jo zuten. Bilbok izan zuten garapena eta beherakada pareko baldintzak betetzen zituzten beste hiri batzuek ere izan zuten, hala nola, Liverpool, Glasgow edo Baltimorek. Industriaren hazkundera bere mugara iritsi zenez, ingurune hauetako ekonomia beste esparru batzuetara zabaltzea beharrezkoa zen, eta hemen agertzen zaio Bilbori bere jarraibidea, Glasgow hain zuzen ere. 1985erako jada, Glasgower argitaratuak zituen hiria garai postindustrialera egokitzeko proposamenak, non marketingaren bidez eskualdearen itxura hobetu behar zen, inbertsio berriak erakartzeko helburuarekin⁹. Hau da, ekonomiaren pisua banatu egin behar zen, hirugarren sektorean apustu eginik. Aldaketa honek kulturarekin lotutako proiektuak eta urbanismo berri bat ekarriko zuten, kultura bihurtuko delako suspertze ekonomikorako tresna krisian sartutako hiri industrialetan. Sistema kultural honi eredu anglosaxoia deritzo, eta honetan industriako jabetza truketik mundu postindustrialeko ezagutza trukera pasatzen da, non kapital kulturalak hartzen duen garrantzia, eta sarritan esperientziaren bidez kontsumitzen diren ondare ukiezinen kontsumoa nabarmenduko den, objektu fisikoen ordez¹⁰.

Horrela, gero eta garrantzia handiagoa izango dute Industria Sortzaileak eta Kultura eta Sormen Industriek, hots, esperientzia kultural, turismo eta aisialdira bideratutako espazio oro, musika, zinema, telebista, publizitate, diseinu, moda eta arteekin harreman dagoena. Hortaz, 1980. hamarkadatik aurrera, industria hauek kulturak ekonomian duen papera aldatu zuten, azken finean, baliabide kulturalen komertzializazioa ekarriz. Max Horkheimer eta Theodor Adornoren ideiak berreskuratuz, industria kulturalak kultura kontsumora bideratuta dagoen produktutzat hartzen du, eta lehen aipatutako diziplinen bidez, masan ekoiztua dagoen produkzio hau estandarizatu egiten da, eta aldi berean, pentsamendu hegemonikoaren erreproduzitaile da¹¹. Honen emaitza da, politika kulturalak instituzioen tresna diren heinean, adierazpen estetikoak arautu eta moldatzeko bitarteko direla. Hori dela eta, boterean dagoen

⁹ Ibid., 62-63. orr.

¹⁰ SÁNCHEZ, Oihane. “Análisis de la producción y la programación en las prácticas artísticas contemporáneas; en busca de una producción sostenible en la CAV de las políticas culturales basadas en la idea de monocultivo a la diversidad de formatos híbridos”. *ADDI*, 2020. <https://addi.ehu.es/handle/10810/50429> (kontsulta data 2022/05/19). 63. or.

¹¹ Ibid., 64-66. orr.

pentsamenduaren erreproduzitzailerik den bezala, kultura eredu bat ezartzen du, sortzaile profil bat, sortzeko era bat, eta emaitza modelo bat, Sánchezek “monocultivo cultural” deritzona¹².

Hiri industrialetik postindustrialerako trantsizioaren erakusle da Europako kultura-hiriburutza, Europako parlamentuak urtero hiri bati edo hainbati ematen dien izendapena. 1990ean Glasgow hiriak jaso zuen, mundu mailan bere burua promozionatzeko aukera eman ziolarik, eta era berean, zenbait proiektu urbanistiko gauzatzeko aitzaki bihurtu zen¹³. Hau da, hiriko ekonomia krisian zegoen industria zerbitzuengatik aldatu zutela, honek dakartzan proiektu kulturalekin, teknologia berri eta marketing estrategien bidez salduz, alegia.

Hala eta guztiz ere, Bilboren kasuan, hiriaren ondorengo urteetarako plangintza berandu heldu zen, jada metropolia ekonomikoki, sozialki eta urbanistikoki erabateko gainbeheran zegoenean¹⁴. Urte hauetan hasi ziren lur industrialak bultzatzeko saiakerak, hutsik gelditu zirelako, hiriaren antolakuntzari kaltetuz eta proiektu berriak kokatzeko espazio aproposak zirelako. Hauen artean 1991koa da erabakigarrienetako bat, Bilbao Metropolitarrak Birbizteko Plan Estrategikoa, zeinetan hiri industrialak planteatzen zituen mugikortasun arazoak azterketa egiten zen; eta ondorengo urteetarako helburu batzuk zehazten ziren, instituzio publikoen eta inguruko enpresa handien arteko elkarlana izango zena. Baita *Bilbao Ría 2000* ere, zeinek Bilbo penintsula iparraldeko metropoli nagusi, eta Ardatz Atlantikoko zentro ekonomiko eta kulturala bihurtzeko Guggenheim Bilbao Museoa, Abandoko estazioa, Musika Jauregia eta trenbide proiektuak gauzatu behar zituen¹⁵, ekonomia tertziarizatuz.

Egitasmo urbanistiko hauek, Carlos Larrinagak eta Oihane Sánchezek adierazten duten bezala, metropolian klase sortzaile baten eraketara eta kontsolidazio aldera daude pentsatuta, helburu honek bat egin dezakeelako hirugarren sektoreko ekonomia bilakatu nahi duen xedeekin¹⁶. Ez da bakarrik komertzio berriak sortzea, hauetan lan egingo duten eta hiriari izaera propio zein kapital sinbolikoa gehituko dioten komunitate eta agenteak sortzea da, alegia. Klase sortzailea hirian ezartzeko, beharrezkoa da hau ahalbidetzen duen testuinguru bat sortzea. Kasu askotan, azpiegitura industrialak izan dira auzo artistikotan bihurtu direnak,

¹² Ibid. 46. or.

¹³ LARRINAGA, Carlos. Op. cit., 63. or.

¹⁴ Ibid., 63. or.

¹⁵ Ibid., 66-67. orr.

¹⁶ Ibid. 68. or. eta SÁNCHEZ, Oihane. Op. Cit., 70. or.

une horretan devaluatuta zeudelako. Ostera, agente honek lurraren balioa berriz hazteko balio dezake¹⁷. Espazio hauek, industriaren hazkundeak aurrera egiten zuenean, funtzio bat betetzen zuten, baina krisia hirira heldu zenean, asko hutsik gelditu ziren edo metropoliaren dinamiketarako oztopo ziren, *terrain vague*¹⁸ edo Iñaki Estebanek erabilitako *espacio basura*¹⁹ bilakatuz. Eremu horren mantentzeak ez du onurarik ekartzen, eta hiriaren erdigunean aurkitu ohi direnez, hauetariko askotan bertako ekonomia dinamizatuko duten proiektuak kokatzen dira. Aldi berean, urbanismoa era gaurkotuan ordenatzeko eta itxura garbia emateko balio duen prozesua da²⁰.

¹⁷ SÁNCHEZ, Oihane. Op. Cit., 85. or.

¹⁸ Ibid., 77. or.

¹⁹ ESTEBAN, Iñaki. *El Efecto Guggenheim. Del espacio basura al ornamento*. Bartzelona: Editorial Anagrama. 2007. 39. or.

²⁰ LANGE-VALDÉS, Carlos. “La arquitectura como dispositivo de regeneración urbana: 20 años del Museo Guggenheim Bilbao”, *Bitácora*, 28, 2018, 118. or.

3. Guggenheim Bilbao Museoa proiektua

Industrian oinarritutako ekonomiak hirugarren sektorerako izan zuen bilakaera ikusita, eta honek hirietan zein kulturaren eragindakoa azaldu ondoren, Guggenheim Bilbao Museoaren proiektuan sakonduko dut hurrengo orrialdeetan.

Eraldaketa urbano eta ekonomiko hauen bidez, endekapenean zegoen ingurunea berriz ere sartu zen dinamika berrietan. Gainera, prozesu honen emaitzarik argienak metropolian aurkitzen ditugun arren, eskualde osoa baldintzatu eta bultzatu zuen mugimendua izan zen, aurrerantzean garatuko ziren politika kulturaletan mugarri bat suposatu zuelarik.

Bilboren itxuraberritzean beste hainbat pauso egon ziren, baina Guggenheim Bilbao Museoa izan zen etapa berri honi izena eman ziona. Izan ere, beste hiri batzuk izan zuten haien itxura berria mundura proiektatuko zuen gertakizun bat, Glasgower 1990ean Europako kultura-hiriburutza izan zuen bezala, Sevillak Nazioarteko Erakusketa 1992an, edota Bartzelonak, urte berean, Olinpiar Jokoak²¹. Beraz, horrelako zerbait izan ezean, hiriaren izaera berria irudikatuko zuen ikonoa behar zuen Bilbok, eta bide batez, hirugarren sektorean oinarritutako hiri bateko gainerako beharrei ere erantzuna emango zien proposamena aurkitu zuen.

3. 1. Prozesua eta helburuak

Guggenheim Fundazioa 1980. hamarkadaren amaieran finantza arazoetan murgilduta zegoen, eta Thomas Messerrek 1988an zuzendari postua utzi zuenean, Thomas Krensek hartu zuen, markaren hedaketa plan bati hasiera eman ziolarik²². Identitatea eta kultura-aniztasuna nabarmentzen den unean, Thomas Krensen proposamenak, zeinek lokalaren eta internazionalaren arteko erdi puntu bat bilatzen zuen teorian, forma hartu zuen. Joseba Zulaikak museoaren kudeaketa eta joera berriari “krensifikazioa” deitzen dio, turismoa eta

²¹ LARRINAGA, Carlos. Op. Cit., 69. or.

²² HAACKE, Hans. “El Museo Guggenheim: Un plan de negocios”. In: GUASCH, Anna Maria eta ZULAIKA, Joseba ed.. *Aprendiendo del Guggenheim Bilbao*. Madril: Akal, 2007, 122. or.

publiko zabal bat erakarriko duen arkitektura ikusgarri baten bidezko eta higiezin-politika zein beste negozio batzuetan eragiten duen frankizia globalaren museo ereduari²³.

Hainbat saiakera egin zituen, Berlinen, Salzburgon eta Moskun, baita Espainiako beste hiri batzuk kontuan hartu, baina azkenean, 1991an Bilborekin hasi ziren hitzarmenak. Bi aldeek zituzten akordiorako arrazoiak. Izan ere, Bilbo ez zen eszenatoki neutral bat²⁴ eta Euskal Autonomia Erkidegoa, oro har, egoera ekonomiko konplexu batetik zetorren. Gainera, honi gehitu behar zaio beste arrazoi batzuen artean ETArengatik lurraldeak nazioartean zuen irudi negatiboa, eta ondorioz, inbertitzaileek adierazi zituzten zalantzak. Hala ere, bi aldeak dependienteak ziren arren, Guggenheimak bere neurriak inposatu zituen. Izan ere, proiektuaren kostuez instituzio lokal publikoak, Eusko Jaurlaritza, Bizkaiko Foru Aldundia eta Bilboko Udala arduratu ziren batez ere. Horren baitan, 50 milioi dolar obra berrien erosketarako, urtero 12 milioiko aurrekontuak eta beste 20 milioi museoaren izena izateagatik, eta erakusketetan bildumako gainontzeko obrak erakusteko aukera izateagatik. Bitartean, Thomas Krensek zuzendutako museoak erosketa, kudeaketa eta programaren gaineko kontrola zuen²⁵. Gauzak horrela, 1991an, zenbait batzar eta bidaiaren ondoren, abenduaren 13an azken hitzarmena sinatu zuten New Yorken, isiltasun klausula bati esker publikoak eta euskal biztanleriak izan zitzaketen kontrako iritziak aurreztu zituztelarik negoziaketan prozesuan. New Yorkek museoaren hedapenarekin eta kudeaketa ereduaren zabaltzearekin Bilborekiko zuen nagusitasuna erakutsi zuen. Hain zuzen ere, proiektua estatubatuarren baldintzapean gauzatu zenez, museoaren gaineko kontrol intelektual eta estrategikoa burutzen zuten, programa artistikoa, salerosketak, erakusketak, eta eraikuntzaren arkitektura haien esku gelditzen baitzen²⁶. Hortaz, 1997ko urriaren 18an ospatu zen museoaren inaugurazioa ez zen bilduma eta erakusketak antolatu eta komisariotuko zituen instituzio baten irekiera soila, ekonomia ezberdin baten garapenerako inbertsio berriak ekarriko zituen ekitaldi soziala zen, zeinetan nazioarteko enpresen ordezkariak eta politikariak bilduko ziren²⁷.

²³ ZULAIKA, Joseba. "Bilbao deseada: El malestar de la "krensicación" del museo". In: GUASCH, Anna Maria eta ZULAIKA, Joseba ed.. *Aprendiendo del Guggenheim Bilbao*. Madril: Akal, 2007, 153. or.

²⁴ GUASCH, Anna Maria. "Museos globales versus artistas locales. Paradojas de la identidad entre lo global y lo local". In: GUASCH, Anna Maria eta ZULAIKA, Joseba ed.. *Aprendiendo del Guggenheim Bilbao*. Madril: Akal, 2007, 193-194. orr.

²⁵ HAACKE, Hans. Op. Cit., 122. or.

²⁶ ZULAIKA, Joseba. Op, Cit., 154-156. orr.

²⁷ ESTEBAN, Iñaki. Op. Cit., 23. or.

Segidan aztertuko ditugun ekimenak jaiotzez zituen helburu eta funtzio asko betetzen dituela ikus daitekeen arren, hasiera batean behintzat kontrako iritzi asko eragin zituen proiektuak, kulturaren globalizazioak eta negoziazioetako sekretismoak. Honen adibide dira kontratua publiko egiteko eskatzen zuten lauhundik gorako artista eta intelektual euskaldunak. Ulergarria, kontuan izanik egitasmoaren zati handi bat diru publikoz finantzatuko zela, langabezia %25era heltzen zen une berean²⁸.

Lan honetan ikusten ari garen ideietariko asko aipatzen ditu Juan Ignacio Vidartek, Guggenheim Bilbao museoko zuzendariak, 2000. urtean argitaratutako testu batean. Honetan, museoaren inguruko helburu eta funtzionamenduak lantzen ditu. Vidartek testuan zehar esaten du museoa ospe oneko zentro kultural izateko helburuarekin sortu zela, eta hau dela bere izatearen arrazoietako bat. Hau da, Guggenheim markaren espansionismoaren pausutzat har daiteke. Bigarrenik, hiriak eta orokorrean herrialdeak mundura proiektatu nahi duen itxuran duen paperaren inguruan, argi uzten du ez dela zorizko ondorio bat, eta gainera honekin batera, beste lorpen batzuk egon daitezkeela, helburu kulturaletik haratago daudenak²⁹. Honen bitartez lehen atalean hiri postindustrialetan kulturak hartzen duen rola nahi ekonomikoetarako erabili daitekeena, eta aldaketa sozial, ekonomiko eta urbanistikoen sustatzaile izan daitekeena, betetzen dela erakusten du.

Testuak arteari aipamen gehiegi eskaintzen ez dizkion arren, museoak dakarren berrikuntza baten inguruan hitz egiten du, planteamendu museologiko berritzailea, alegia. Puntu honen gakoa da, Guggenheim museoek partekatzen duten bilduma, norberak duen propioaz gain. Hau da, bilduma birakaria denez, bisitari berriak bereganatzeko eta ohikoak diren bisitariak itzultzeko garrantzitsua da. Etengabe turistak erakarri nahi dituen hiri globalarentzat nahitaezkoa den ezaugarria, hirugarren sektoreko negozioak mantendu beharko baitira.

Beste funtzio batzuen artean hezkuntzarena agertzen da, nolana ere, testuan zehar erabilitako hizkerak eta museoaren alde ekonomikoa garrantzitsuenetariko bat bezala aitortzeak, argi uzten du interes ekonomikoen menpe jarduten duela, eta ondorioz, bestelako xedeak honen azpitik gelditzen direla, adibidez honako hau esaten duenean:

²⁸ ZULAIKA, Joseba. Op. Cit., 155. or.

²⁹ VIDARTE, Juan Ignacio. "El Guggenheim Bilbao Museoa", *Bidebarrieta: Revista de humanidades y ciencias sociales de Bilbao*, 6. zk., 2000, 36. or.

“Cualquier cesión en sus planteamientos a tensiones o a presiones más localistas sería, a medio plazo, nefasta para el funcionamiento no sólo del Museo sino para la propia contribución de éste en ese apoyo al entorno local”³⁰.

Zuzendariak ingurune lokalaren garrantzia azpimarratzen duen arren, eta jomugetako bat bertako biztanleriaren bizitza kalitatea hobetzea omen den arren, bigarren maila batean gelditzen dela ikus daiteke, gertuko ingurunearen eskakizunak beteko ez dituztelako, museoaren interesekin bat egiten ez badute gutxienez. Museoaren “krensifikazioak” eta hiri globalaren eraikitzearen ondorioak ikusten dira beraz, kultura, plangintza ekonomiko eta urbanistiko baten baitan, garapenerako eragile gisa erabiltzen dela³¹.

3. 2. Eraikina eta hiria

Esan bezala, Bilbo museoa irekitzeko aukera bezala kontenplatu aurretik, beste proiektu batzuetan lanean egon ziren. Baita Frank Gehry arkitektoa ere, geroago Bilbon eraiki zuena Los Angeleseko Wall Disney Hall auditorioan probatu baitzuen. Anna Maria Guaschek dioen bezala, Los Angelesekoa, edo Massachusettsen egin behar zen Mass-MoCA proiektuaren entsegu modukoa zen, azkenean Bilbon garatu zena, baina behar izanez gero, beste hiri baterako ere balioko zuen eraikina zen³², produktu prefabrikatu baten modukoa.

Eraikinak proiektua justifikatzen du. Momentuan eraikin garestia izan bazen ere, ezin izango litzateke horrelako egitasmo bat aurrera atera Frank Gehryren diseinuagatik ez balitz. Hiri globalean, eraikina bihurtzen dutelako turismoa erakartzeko esperientzian eta botere ekonomiko, politiko eta kulturalaren ikur³³. Auzo baten balioa handitzeko gainera, horrelako azpiegitura batek kulturaren paper garrantzitsu bat jokatzen duenak, eta arkitekto ezagun batek diseinatuak denak, kapital sinbolikoa sortzeko aproposa bilakatzen da, eta turismo kulturala zein beste negozio batzuk sustatu ditzake³⁴.

³⁰ Ibid., 41. or.

³¹ AZÚA, Jon. “El Guggenheim Bilbao: Estrategias “coopetitivas” para los nuevos espacios cultural-económicos”. In: GUASCH, Anna Maria eta ZULAIKA, Joseba ed.. *Aprendiendo del Guggenheim Bilbao*. Madril: Akal, 2007, 89.or.

³² GUASCH, Anna Maria. Op. Cit., 199. or.

³³ ESTEBAN, Iñaki. Op. Cit., 74. or.

³⁴ SÁNCHEZ, Oihane. Op. Cit., 78.or.

3. 2. 1. Urbanitate forma berriak

Nahiz eta Guggenheima ez den prozesu honetako pieza bakarra, hau da garrantzitsuen hiriaren irudian bihurtu delako. Hiria eta bere paisaia era fisikoan aldatzen duen bezala, urbanitate eredu berriak proposatu edo inposatzen ditu, hau da, subjektibitate, praktika eta erlazionatzeko era berriak. Ondorio honek bat egiten du hirian kultura zentraltasun berri bat sortzeko asmoarekin. Baita azpiegituren berriketekin eta Sorkuntza Industria eta Industria Kulturekin loturiko beste zerbitzu batzuk eskaintzen dituztenekin ere, hala nola, Norman Fosterren metro estazio berriak, Ricardo Legorretaren Sheraton Bilbao hotela, Philippe Stracken Azkuna zentroa, Santiago Calatravaren Zubizuri zubia eta abar luze bat, ikus daitekeen bezala arkitekto ospedunek diseinatuak direnak. Honekin batera datoz kaleak oinezkoentzat bihurtzea, parkeak eta kontsumora bideratutako gainontzeko espazioak, turista eta enpresen begietan hiria erakargarriago egiten dutenak³⁵.

Honen bidez, lehen industriaren logikan funtzio bat zuenak, orain erabilera berri bat izango du kontsumoaren hirian. Giorgio Agambenek Michel Foucaulten erako dispositiboan definizioan hartzen ditu iritzi, jarrera eta diskurtsoak orientatu, moldatzeko eta kontrolatzeko ahalmena duen oro³⁶. Zentzu honetan, garai berriei egokitutako bizimodu bat ezartzen da, non eremu honen kultura zentraltasuna balioan jartzen den³⁷.

3. 2. 2. Estetizazioa eta eraikina ikono bezala

Guggenheim Bilbao Museoaren eraikinak Frank Gehryren diseinua jarraituko zuela erabaki zuten momentutik, hiria helmuga turistiko bihurtu behar zen. Hiri globalek eta museo eredu berriak arkitektura ikuskizun moduan ulertzen dute, publiko masa bat erakarriko duen errekurtsua. Hiri markaren bitartez, hiria bera ekoizpen-kate batean bihurtzen da, zeinetan hiriak bere irudi propioa sortu, proiektatu eta saltzen duen, hau kontsumitua izan dadin esperientzia kulturalen bitartez³⁸.

³⁵ LANGE-VALDÉS, Carlos. Op. Cit., 116-117. orr.

³⁶ Ibid., 117. or.

³⁷ Ibid., 120. or.

³⁸ SÁNCHEZ, Oihane. Op. Cit., 91. or.

Hortaz, eraikinak hiriaren estetizazioan laguntzen du, metropoliaren irudi berriaren proiektiora bideratuta dagoena, turismoa bezalako negozio berriei atea irekiz³⁹. Honek zalantzan jartzen ditu museoaren funtzio kulturalak, Iñaki Estebanek seinalatzen duen bezala, krisian dagoen hiri itsusi eta zakarra estetizatzeko apaingarriztat hartzen duenean Guggenheima⁴⁰.

Esan daiteke estetizazioa ez dela azpiegituren eraikuntza eta edertzearekin hasten, baizik eta degradatutako auzoa klase sortzaileak habitazen duenean, haien presentziarekin, bertan kokatzearekin soilik, balio sinbolikoa irabaztean, auzoak duen irudia aldatu egiten dela, modan dagoen espazio bilakatuz. Honek ekarriko du programa kultural bat martxan jartzea, kasu honetan instituzio artistiko bat ezarri zelarik⁴¹.

Hortaz, Bilbo bezalako hiri batean, eraikina ikono bihurtzen da, eta hiria bera itxura berri honekin promozionatzen da. Identitate propio, definitu eta erakargarri bat igorriko duen marketing estrategia bat bezala. Lehen museo handiak haien kolekzioengatik identifikatzen ziren, eta orain, instituzioaren eraikina bera izango da kolekzioa bilduko duen obra nagusia⁴².

3. 3. Globalizazioa eta lokala

Gaur egun museoek arte obrak erakustea baino gehiago egiten dute, eta hortik, politika kulturaletan jokatzeko duten papera⁴³. Instituzioak ikuslearekin duen harremana nabarmentzen da, erakusketak diskurtsorako tresna baliagarri bihurtzen dira, eta aldi berean, hau bere izatea legitimatzeko mediotzat hartzen da⁴⁴.

Museoen izaeran gertatzen ari ziren aldaketa hauen artean, Solomon R Guggenheim fundazioak Thomas Krensen zuzendaritzarekin, munduan zehar zabalduko frankiziak zuzentzen dituen instituzioen kate bat suposatzen du⁴⁵, bere funtzioak kulturatik haratago

³⁹ Ibid., 83. or.

⁴⁰ ESTEBAN, Iñaki. Op. Cit., 10. or.

⁴¹ SÁNCHEZ, Oihane. Op. Cit., 87. or.

⁴² GUASCH, Anna Maria eta ZULAIKA, Joseba. "Aprendiendo del Guggenheim Bilbao. El museo como instrumento cultural". In: GUASCH, Anna Maria eta ZULAIKA, Joseba ed.. Aprendiendo del Guggenheim Bilbao. Madril: Akal, 2007, 17. or.

⁴³ Ibid., 9-10. orr.

⁴⁴ ESTEBAN, Iñaki. Op. Cit., 25. or.

⁴⁵ GUASCH, Anna Maria eta ZULAIKA, Joseba. Op. Cit., 17. or.

aurkitzen direlarik. Turismoa eta inbertsio berriak erakartzeaz gain, propaganda nazionalerako tresna izan daitezke⁴⁶. Guggenheimaren espantsionismoarekin, kultura estatubatuarra hegemonikoa dela erakusten dute, eta gainera, prozesu honen bidez, beste herrialdeetako ekonomia indartu daitezkeenez, Estatu Batuek haien kultura eredu inposaketarekin, beste herrialde batzuk krisitik atera eta “salbatzen” dituzte⁴⁷. Horrela kultura politikaren osagarri bat bihurtzen da, tresna bat. Eredu hau Bilbo bezalako hiri batean inposatzean, eredu horren neurrietan sartzen diren adierazpenak dira lekua hartuko duten bakarrak, eta honek eredu hau erreproduzitzen jarraitzea ahalbidetzen du, ezberdintasunak berdinuz, eta homogeneousazioa zabalduz⁴⁸. Era berean, identitate propioen eta berezitasunen galera dakar, orain balio internazionalak direnengatik ordezkatzeko, kanon estandarizatueta egokitzeko.

Jon Azúa, negoziaketetan lehendakariorde zenak esaten du proiektuak etorkizun berri bat eskaintzen zuela, identitate kultural propioari uko egin gabe, eta museo eta hiriaren eta bertako biztanleen arteko komunikazioa garrantzitsua dela⁴⁹, baina Guggenheimaren baldintzak onartu zirenean, hau kudeatzeko eta kontrolatzeko eskubideak galdu ziren. Egia da, 1999tik aurrera urtero eginiko “Artea ikasbide” deituriko erakusketak Azúaren ideiekin bat egiten duela, artista lokalek zuzentzen duten hezkuntza programa bat baita, autonomia erkidegoko ikastetxe batzuekin batera burutzen dena. Baina argi dago erakusketa hauek ez direla nabariak museoaren programan. Izan ere, nazioarteko azken joerak lokalarekin uztartu behar zituen egitasmoak, 1997tik 2007ra, hamar urteko tartean, ehun erakusketa burutu zituen. Hauetatik soilik hamaika izan ziren euskal artistei eta euskal panoramari eskainiak, eta hauetatik bi erakusketa pieza bakarrekoak ziren, Jesús Mari Lazkano eta Koldobika Jauregirenak hurrenez hurren. Besteetan ere, Cristina Iglesias, Jorge Oteiza eta Eduardo Chillidarenak salbu, artista bakoitzak pieza bakarra edo gutxi batzuk erakutsi zituzten. Zehazki euskal artean oinarritzen ez ziren erakusketetatik lauetan soilik aipatzen da euskal egileen presentzia, Chillida izanik pisua izango duen bakarra, besteena anekdotazkoa baita⁵⁰.

⁴⁶ GUILBAUT, Serge. “Una noche en Bilbao: ¿El Guggenheim como un nuevo Edsel* cultural?”. In: GUASCH, Anna Maria eta ZULAIKA, Joseba ed.. *Aprendiendo del Guggenheim Bilbao*. Madril: Akal, 2007, 147. or.

⁴⁷ ZULAIKA, Joseba. Op. Cit. 162. or.

⁴⁸ GUILBAUT, Serge. Op. Cit., 150. or.

⁴⁹ AZÚA, Jon. Op. Cit., 83-86. orr.

⁵⁰ “Erakusketak”. *Guggenheim Bilbao Museoa*. <https://www.guggenheim-bilbao.eus/eu/erakusketak/aurrekoak> (kontsultatutako data 2022/05/22).

4. Kultura kontsumo-produktu

Museoa zein helbururekin eta testuingurutan garatu zen ikusi ondoren, argiago ikusten da hiriaren itxura berrian betetzen duen papera eta gertuko ingurunearekin mantentzen duen harremana. Laugarren zatian puntu hauetan sakonduko dut. Horretarako, Oihane Sánchezek proposaturiko ekosistema kulturalaren inguruan eginiko azterketa dut oinarri, egitasmo honen funtzionamendua eta ondorioak identifikatzen laguntzen baitu.

George Yúdiceren hitzetan: “el papel de la cultura se ha expandido de una manera sin precedentes al ámbito político y económico, al tiempo que las nociones convencionales de cultura han sido considerablemente vaciadas (...) caracterizada por la rápida globalización, considerándola como un recurso”⁵¹.

Kultura bere berezko balioarengatik aintzat hartu ordez, politika zein ekonomian izan ditzaken funtzioengatik balioesten da. Ekonomia suspertzeko eta helburu politikoak betetzeko tresna izan daiteke, besteak beste; euskal testuinguruan, identitate nazionalak eta xede ekonomikoak nabarmentzen direlarik⁵². Horrek eragiten du politika kulturala, botere hauen esku, tresna instituzional bilakatzea eta beraz, sormen estetikoak moldatzeko eta erregulatzeko medio izatea⁵³. Kontuan izanda, Guggenheima dela euskal politiketan aztarna handiena utzi zuen museoa, instituzio publikoek gainontzeko museoen garapenean parte-hartze handiagoa izatea egin zuen⁵⁴. Honek esan nahi du, instituzioetatik bultzatutako adierazpen oro ideia eta interes batzuen menpe egongo dela, ez beti era zuzen batean, baina bai interes hauei dagokien modelo kulturalen baitan ulertu behar direla. Faktore hauen eragina ez da mugatuko instituzioetako produkzioari forma eman eta eredu bihurtzera, baizik eta eredu hauetatik kanpo gelditzen direnen produkzioa eta hauek sor daitezen behar dituzten baldintzen ezegonkortasuna ekartzera. Horretarako hiru tokitatik jarduten dute instituzioen indarrek: formakuntza, produkzioa eta erakusketa⁵⁵.

⁵¹ YÚDICE, George. *El recurso de la cultura. Usos de la cultura en la era global*. Bartzelona: Editorial Gedisa, 2002. 23. or. aipatua in SÁNCHEZ DURO, Oihane. Op. Cit., 47. or.

⁵² ARRIETA, Iñaki, DÍAZ, Iñaki eta VIAU-COURVILLE, Mathieu. “A l’ombra del Guggenheim-Bilbao: legislació i política museística al País Basc”, *Revista d’etnologia de Catalunya*, 42. zk., 2017, 100. orr.

⁵³ SÁNCHEZ, Oihane. Op. Cit., 48. or.

⁵⁴ ARRIETA, Iñaki, DÍAZ, Iñaki eta VIAU-COURVILLE, Mathieu. Op. Cit., 93. or.

⁵⁵ SÁNCHEZ, Oihane. Op. Cit., 176. or.

Oihane Sánchezen arabera, ekosistema kulturalaren baitan, praktika eta proposamen artistiko zein kulturalen aniztasuna aurkitzen da. Proposamen bakoitzak instituzioekin, testuinguruarekin eta ekosistemako beste elementu batzuekin duen erlazioaren arabera, ekosistema kulturala orekatsuagoa da ala ez⁵⁶.

4. 1. Guggenheim Bilbao Museoa eta ekosistema kulturala

Turismoaren merkatua zabaltzen den momentutik, hiriak produktu bilakatzen dira, turista masa handiak erakar ditzaketenak. Museoak izan ditzaken funtzioen barruan beraz, publiko zabal bat erakartzea egon daiteke, oinarri handi bat atzerritarra izango duena, hirugarren sektoreko beste zerbitzu batzuen kontsumitzaile potentzialak direlako, lokalak direna baino gehiago. Ondorioz, museoa publiko masibo kanpotar bati bideratzen da, hiri osoari estrapolatu daitekeen ideia⁵⁷. Turismoan apustu egiten duen hirian zerbitzuak turistengana zuzenduak egongo dira, hiritarren ongizatera egon beharrean. Ideia honen erakusle da, 2022ko martxoko El Correo egunkariko honako lerroburua eta artikuluaaren hasiera: “Los hoteleros de Bilbao piden que abran las tiendas en domingo: «Los turistas deambulan sin poder comprar» Cinco directores reunidos por EL CORREO creen que el modelo de negocio de los últimos 20 años «tocó techo» en 2019. Para ellos, la ciudad debe ahora reinventarse como un «destino inteligente y sostenible»⁵⁸. Hitz hauen bidez, alde batetik, hiriak zein itxura proiektatzea nahi duten erakusten dute, helmuga turistiko jasangarria, eta bestetik, hiriko negozio ezberdinei aplikatu daitekeena, zerbitzuak turismoari zuzentzea nahi dutela, nahiz eta bi baieztapenak kontraesankorrak diren.

Kultura merkantzia bihurtzen da, eta honen kontrola korporazio handien eta instituzioen eskuetan gelditzen da⁵⁹. Beraz, kulturaren erabilera ekonomikoak eredu kultural zehatz batzuk bultzatzea eragingo du, proposamen guztiak ez baitira errentagarriak. Hau da, azken produktu definitu bat dutenak goستن direla, ekoiztu-kontsumitu eskeman sartzen direnak, eta ez ordea, prozesuak direnak edota jakintza eta harreman sareak dutenak ondorio. Honen

⁵⁶ Ibid., 169. or.

⁵⁷ Ibid., 218. or.

⁵⁸ GÓMEZ, Luis. “Los hoteleros de Bilbao piden que abran las tiendas en domingo: “Los turistas deambulan sin poder comprar””. *El Correo*, 2022-03-06.

<https://www.elcorreo.com/bizkaia/turistas-deambulan-domingos-20220306202524-nt.html>

⁵⁹ SÁNCHEZ, Oihane. Op. Cit., 169. or.

arazoa ez dago kultura produktu bihurtzean soilik, baizik eta eredu hauek testuinguruarekin harremantzeko duten eran, panorama artistiko lokalari eragiten dio eta⁶⁰.

Eredu bakoitzak testuinguruarekin eta sare kulturalarekin duen harremana bereizteko Oihane Sánchek ekosistema kulturala geruza ezberdinetan banatzen du. Gainazalean aurkitzen diren geruzak erakusketa funtzioa dute. Honen barnean daude publiko zabal bati zuzendutakoak eta azpiegitura handiak izan ohi direnak. Bigarrenean, artisten hezkuntza eta formazioari loturiko ekimenak daude, eta sortzaileak profesional bihurtzeko helburuan laguntzen dute. Hirugarrenak agenteek haien jarduerekin jarraitzeko bermean euskarri bat suposatzen du, produkzioa sustatuko duten proposamenak izango direlarik⁶¹.

Geruzak gero eta sakonagoak izan, klase sortzailearekin harreman handiagoa dute, oinarrizko geruzan talde honek bultzaturiko jarduerak aurkitzen direlarik, haien arteko elkarlan zein harremanak elikatzen dituztenak. Hemendik sustatutako proiektuak ekonomikoki ez dira horren errentagarriak, azken emaitza esperimentalagoak direlako, nahiz eta bestelako onura bat ekartzen duten⁶². Honen adibide da Rekalde Aretoa, klase sortzailearekin erlazionatzen dena eta publiko murriztuago bat erakartzeagatik kritikak jaso izan dituena⁶³, hain zuzen ere, saltzen duten irizpideetatik urrunago kokatzeagatik. Ekimenak instituzioarekiko dependentzia handiagoa duen heinean, erakusketa eta hedapenera lotuago daude, eta agente sortzaileen interesetatik urrunago⁶⁴.

Eskema honi jarraituta, Guggenheima gainazaleko geruzan kokatuko litzatekeela ikus daiteke, bere funtzio nagusia erakusketa delako. Gainera, turismo kulturala eta hiriaren irudia bultzatzeko xedean pieza gakoa da, hogeitabost enpresek baino gehiagok erabili baitute museoaren irudia haien produktuak saltzeko⁶⁵. Lehen geruza honek publiko zabal bat bilatzen duenez, eta klase sortzailearekin ez duenik zertan harreman zuzenik izan, kultura sortzaileetatik urrunen gelditzen dena da. Honek kultura errekurtsio bezala erabiltzea dakar, eta aldi berean, testuinguru ezberdinetan txertatu daitezkeen predeterminatutako modelo

⁶⁰ Ibid., 227-228. orr.

⁶¹ Ibid., 172. or.

⁶² Ibid., 176. or.

⁶³ BARCENILLA, Haizea. Op. Cit., 38. or.

⁶⁴ SÁNCHEZ, Oihane. Op. Cit., 175. or.

⁶⁵ FERNÁNDEZ, María Dolores eta AGUIRREGOITIA, Ainhoa. “La cultura como inversión turística. Una reflexión a propósito del Guggenheim Bilbao”, *TURYDES*, 4. lib., 11. zk., 2011 https://web.archive.org/web/20180410174950id_/http://www.eumed.net/rev/turydes/11/fpam.pdf (kontsulta data 2022/05/22). 6. or.

kulturalak sortzen ditu. Honako geruza hau denez ekonomikoki onuragarriena, eta testuinguruarekin harreman propiorik ez duenez, beste hiri batzuetan aplikatzen da, homogeneousazio kulturala dakarrelarik⁶⁶. Haizea Barcenillak ere ematen du estandarizazioaren joeraren berri, kultura azpiegituretan inbertsioak egin ondoren, krisi ekonomikoarekin sektore kulturean murrizketak egitean, batez ere produkzioa sustatzen zutenek pairatzen dutelako. Ondorioz, produkzio lokala finantziario iturririk gabe gelditzen da, kanpotik datorren eskaintza kulturala nabarmentzen delarik⁶⁷.

Estatuak kulturean aurkituko duenez identitate berri baten eraiketarako bidea, Jesus Carrillok erakusten duen moduan, kulturaren inguruko definizioa guztiz “estatalizatu eta merkantilizatua” geldituko da, eta edukietan kontrol handiagoa eragiten du, instituzioetatik at eta era independentean jarduten duten eredu kulturalak sortzeko beharra agerian gelditzen delarik⁶⁸. Estatuak eragiten duen boterea, artea komertzializatzen duen beste edozein instituzio boteretsuk eragin dezaken indarrarengatik alda daiteke.

Kapa sisteman oreka egon dadin, finantziarioa ezin da gainazaleko geruzan pilatu. 2020an Eusko Jaurlaritzaren aurrekontuen arabera, produkziara bideratutako kopurua, 33,26 milioi eurokoa izan zen, museoetara bideratu zenaren bikoitza baino gehiago, 16,386 milioi euro. Baina kontuan izan behar da, produkziara bideratutakoak bere baitan esparru zabal eta diziplina ezberdinak hartzen dituela. Erakusketak zuzenean agente sortzaileei onurarik ekarri edo egoera ekonomikoa egonkortzean laguntzen ez duela ikusita, produkzioari bideratutakoa ez da nahikoa haien proiektuen jarraipena bermatzeko. Guggenheimari dagokionean, Eusko Jaurlaritzaren aldetik, Bilboko Arte Ederren museoak 2,3 milioi euro jaso zituenean, honek ia 9 milioi euro eskuratu zituen, 2019an baino 1,5 milioi euro gehiago. Hauei bilduma handitzeko bideratuta zeuden beste 1,5 milioi gehitu behar zaizkio⁶⁹. Horrela argi asko gelditzen da, ekonomikoki zein den aukera erakarriena, bide batez, aipaturiko ezaugarriak betetzen dituen, eta panorama artistiko lokalei onura berezirik ekartzen ez diena.

⁶⁶ SÁNCHEZ, Oihane. Op. Cit., 178. or.

⁶⁷ BARCENILLA, Haizea. Op. Cit., 39. or.

⁶⁸ CARRILLO, Jesús, ESTELLA, Ignacio eta GARCÍA-MERÁS, Lidia (eds.). “Desacuerdos. Sobre arte, políticas y esfera pública en el Estado español”. In: CARRILLO, Jesús, ESTELLA, Ignacio eta GARCÍA-MERÁS, Lidia (eds.). *Desacuerdos. Sobre arte, políticas y esfera pública en el Estado español*, vol. I. Barcelona: Arteleku, MACBA, UNIA, 2005, 11-13. orr. aipatua in SÁNCHEZ, Oihane. Op. Cit., 171. or.

⁶⁹ SÁNCHEZ, Oihane. Op. Cit., 228. or.

Esan bezala, Bilbo eta Guggenheimaren arteko negoziaketetan, estatubatuarrek haien baldintzak inposatzea lortu zuten, haien eskuetan gelditzen zen museoaren kudeaketa eta kontrola. Azken finean, eta Juan Ignacio Vidartek horrela ez dela berresten duen arren⁷⁰, frankizia baten erako museo da. Alde batetik, marka baten esplotazioa gauzatzen delako. Eta bigarrenik, kudeaketa, estatubatuar produktu baten banaketa lekua izango balitz bezalako baita, eta bertan ez delako produktu berririk sortzen, Amerikatik inportatzen dena saldu bakarrik. Bere garaian kontrako iritziek erabili zituzten argumentuak, gustu kanpotarren inposaketa eta bertako izaera propioaren ahultzea ekar zezakeelako⁷¹. Produktu prefabrikatu baten antzera irekitzen da museo atzerrian, eta funtzio ekonomiko eta politiko boteretsuak ere badituenez, kultura lokalarekiko lehentasuna du. Ipar Amerikako enpresa batek mundu osoan zehar bere dendak irekitzen dituen bezala, Guggenheimak museoak Europan zabaltzearekin batera, kultura modernoa zabaltzen du, izaera guztiz enpresariala duen intentzioa⁷².

Beraz, instituzioak sor dezakeen arazo bat inguru lokalarekin duen harremana da. Lehenik eta behin kontuan izan behar da, museoaren arrakasta era ekonomiko batean neurtzen dela, hau da, museo arrakastatsua izango dela bisitari kopuru handiagoa jasotzen duenean, eta publiko honek inguruko ekonomian eragiten duenean, adibidez, publizitatearekin erlazionatutakoa⁷³. Baina proiektuaren erdigunea kultura balitz, museoak ekar ditzaken onurak beste era batera neurtuko lirateke. Dena den, bisitari kopuru handiak erakartzeko helburua duenez, hauek erakarriko dituen artista handiak behar dituzte, eta euskal artistak ez dira gai, ez gehienak gutxienez, hori lortzeko⁷⁴. Museoak erabakitzen du nork merezi duen nazioarteko publiko bat eta nor ordea, ez den nahikoa ohore horretarako. Oteizaren kasuan, nahiz eta artista garrantzitsua zen instituzioaren parte direnzentzat, Richard Serra eta Frank Gehryrentzat beste batzuen artean, museoaren helburu ekonomikoek artista murriztu egiten dute hau zalantzan jartzeraino⁷⁵. Eduardo Chillidari dagokionean ere, Krensek artista lokalek museoan bere lekua izango zutela zioen arren, eta Guggenheima euskaldun bihurtu zela zioen arren⁷⁶, Guggenheim Bilbao Museoak ez zituen artistaren garai berrienerako obrak erosi nahi, nahiz eta 1981ean, New Yorkeko Guggenheimeko erakusketa baten ondoren fundazioak batzuk erosi

⁷⁰ VIDARTE, Juan Ignacio. Op. Cit., 36. or.

⁷¹ ESTEBAN, Iñaki. Op. Cit., 80. or.

⁷² GUILBAUT, Serge. Op. Cit., 148-149. orr.

⁷³ FERNÁNDEZ, María Dolores eta AGUIRREGOITIA, Ainhoa. Op. Cit., 6. or.

⁷⁴ ZULAIKA, Joseba. Op. Cit., 164. or.

⁷⁵ Ibid., 166. or.

⁷⁶ GUASCH, Anna Maria. 197. or.

zizkion. Edonola ere, presioengatik, beste nazioarteko artista euskaldunen obrekin batera bilduma handitu zuten, batzuei diru-xehea iruditu zitzaienaren truk⁷⁷. Guggenheimaren bildumaren parte izateak dakarren ohore eta errentagarritasunak abantaila ematen dio instituzio artistikoari eta instituzio lokalek zer erosi eta erakutsi nahi zuten aukeratzeko erantzukizuna galdu zutenean, artista lokalak proiektutik kanpo gelditu ziren⁷⁸.

4. 2. Gentrifikazioa

Museoak kolektibo artistiko eta kulturalari nola eragiten dion ikusi ondoren, gainontzeko biztanleek jasan dezaketen efektu bat ikusiko dugu. Izan ere, hirugarren sektoreko hiriak bere bizilagunekiko duen harreman honen erakusle ere izan daiteke gentrifikazioa, kasu batzuetan kulturaren bidez gertatzen den transformazioa. Fenomeno hau gutxienez XX. mendearen erdialdetik New Yorkeko SoHoan gertatu izan da⁷⁹. Eraldaketa honen oinarrian, espazio urbano baten endekapena aurkitzen da, sarritan erabilera praktikoa izan duen denboraren ostean, kasu askotan industrialak eta periferikoak izan ohi diren lekuetan, fisikoki zein egitura soziokulturalen aldetik gainbeherako joera erakusten dute. Krisi ekonomikoen ondorioak pairatu dituzten eremu hauetan, klase sozial baxuenak kokatzen dira, eskuragarrienak direlako, baita klase sortzailearentzat ere, zeinek leku aproposak aurkitzen dituen haien praktika artistikoak gauzatzeko, industria-nabeak eta lantegiak, adibidez. Artisten eta haien jarduerekin loturiko agenteen ezarketak, dekadentzian dagoen auzoak balio sinbolikoan irabaztea dakar, eta jarduera kultural eta artistiko hauen instrumentalizazioa burutzen da, lurren balioa igoarazten duena. Aldi berean, gentrifikazioa erabili daiteke nahi ez diren giza-taldeak eremu hauetatik kanporatzeko, esan bezala, hemen kokatutako sektoreak direlako zaugarrienak eta lurraren prezioaren igoerarekin, bizilagunak lekuz aldatzea lor daiteke, haien artean klase sortzailea bera aurkitu daitekeelarik. Nahiz eta kultura erabiltzen den auzo baten suspertzerako, honen balio unibertsalaz baliatuz, hau sostengatzen duten agenteek eta gainontzeko auzokideek pairatzen dituzte prozesuaren ondorio negatiboak, ez baitituzte haien jarduerak mantentzeko egoera eta laguntzak aurkitzen⁸⁰. Etxebizitzaren negozioarako bereziki abantailatsuak diren lurak, XX. mendearen erdialdetik aurrera hiriek jasan duten garapenean, arretagune bihurtzen dira.

⁷⁷ ZULAIKA, Joseba. Op. Cit. 166. or.

⁷⁸ Ibid., 166. or.

⁷⁹ SÁNCHEZ, Oihane. Op. Cit., 86. or.

⁸⁰ Ibid., 93. or.

Eremu gentrifikatuak balio sinbolikoan irabazi duen eta auzoaren itxura aldatzen duen heinean, bertakoentzat garestiegiak diren negozioak kokatzen dira, eta lurraren espekulazioarekin batera, bizitzeko baldintzen garestitzea jazotzen da. Horrela, auzoko giro artistikoa hiriak saltzen duen produktu eta esperientzian bihurtzen da. Hitz gutxitan, fabrika fordistik, fabrika kulturalera pasatuz⁸¹.

Bilboren kasuan, Gehryren eraikina ezkeraldeko kai eta industrialdean kokatu zuten. Narriatuta gelditu zen espazioak eta jada erabilerarik ez zuten egiturek funtzio zehatz bat zuten etorkizuneko inbertsioetan. Izan zezakeen balio potentzialarekiko aldea kalkulatu probetxu atera zioten, Neil Smithek “rent gap” deitzen duena. Hiriak urte horietan erakusten zuten egoeratik eta etorkizunean izan zezakeen arrakastaren tartea errentagarria zen estatubatuar proiektua eraikitzeke eta ondorioz, urbanismoaren garapenerako aukera ona suposatzen zuten. Horrela, museoaren eraikitzea ez ezik, ingurua edertzeko erabili zuten⁸².

Itziar Aguadok Bilboko urbanitate eta auzoen bidezko banaketa ikertu du, zeinek segregazio urbanistikoaren bidez, aberats eta pobreen arteko banaketa handiagoa ekar dezakeen. Tertziarizazioarekin batera etorri zen birsortze urbanoa zentroko auzo degradatuetan burutu zen, Zorrozaurren eta Bilbo Zaharrean, proiektu estrategikoak garatu zirelarik. Hala ere, sarritan honako proiektuek segregazioa handitu eta bizilagunak kanporatu ditzaketenez, hainbat auzo-mugimendu sortu izan dira diskriminazio eta elitizazioaren kontra. Hauen artean, Zorrozaurre Art Work In Progress dago, kulturaren bidez auzoa suspertu nahi duena, baina honen memoria eta auzokideekin duen harremana galdu gabe, edota beste ekintza batzuk Zaha Hadidek diseinaturiko Zorrozaurreko proiektuan bota nahi zituzten etxebizitza eta eraikin industrial batzuk mantentzea lortu zutenak⁸³.

Agian auzo hauetan gertaturiko aldaketak ez dira nahikoak gentrifikazio prozesu bat egon dela zehazteko, baina hala ez bada, esan daiteke potentzialki fenomeno hau pairatzeko arriskuan dagoela joera aldatzen ez bada. Azpimarragarria da inguruak izan dituen garapen urbanistiko, ekonomiko eta sinbolikoak, azken finean museoaren eta oro har, kulturaren

⁸¹ Ibid., 209. or.

⁸² Neil Smith aipatua in ZULAIKA, Joseba. Op. Cit. 158-160. orr.

⁸³ AGUADO, Itziar. “El efecto barrio y su contestación en Bilbao: Dinámicas urbanas, políticas públicas y movimientos sociales”. In NEL·LO, Oriol (ed.). *Efecto barrio. Segregación residencial, desigualdad social y políticas urbanas en las grandes ciudades ibéricas*. Valentzia: Tirant Humanidades, 2021, 379-380. orr.

erabileraren gauzatze fisikoa baita eta mundu mailan gertatzen ari den mugimendu ekonomikoen baitan ulertu behar dena, bere eraginak gizarteko esparru askotara iristen direlarik.

5. Ondorioak

Hiru atal hauen bidez Guggenheim instituzio artistikoak Bilbo bezalako hiri kulturalen betetzen duen papera ikusi dugu, baita urbanismoan eta sare sortzaileetan dituen ondorioak. Azkeneko atal honekin lana burutu ondoren atera daitezkeen emaitzak aurkeztuko ditut.

Lehenik eta behin, argi geratu da kulturak gaur egun duen rola. Bere berezko balioagatik babestu eta sustatu ordez, beste nahi ekonomiko eta politikoei itxura atseginagoa eta sozialagoa emateko errekurtso bihurtu da. Hau baloratzeko irizpidea gizarteari ekartzen dion onura eta bestelako emari soziala izan ordez; hau da, artea, historia, identitate aniztasuna, harremanak indartzeko eta funts soziala duten zerrenda luze baten aldeko ekarpenak izan ordez, zifra ekonomikoen bidez neurtzen da honen fruitua. Halaber, gainazaleko era batean bada ere, kulturarekin erlazionatzen den orok balio gehigarri bat izatea dakar, nahiz eta honi egiten zaion balioespena ez den sakona.

Ildo beretik, ideia honetatik jaiotako hiria erakargarriagoa da programa kultural zabal bat erakusten badu. Honegatik eta kulturaren truk lor daitekeen etekin ekonomiko zein bestelako funtzio politikoengatik, hiria turistek kontsumituko duten produktu bihurtzen da. Dinamika ekonomiko honen baitako lehiakortasunak turismoa era ez jasangarrietan garatzea dakar, publiko masibo bati bideratutako behin behineko eskaintzarekin. Aldi berean, hiriko biztanleak programa kulturalaren publikotik kanpo gelditzeko arriskuan kokatzen dira. Bilbon ikusi dugun bezala, museoak programa kultural horren parte da, eta Estatu Batuetatik aukeraturiko egitaraua jarraitzen du, publiko zabal bati zuzenduz, eta hiritarrei zehazki zuzenduriko eskaintza xumeagoa izanik.

Hiria turistentzako produktu bihurtzearen muturreko adierazpentzat har daiteke gentrifikazioa, bizilagunak bere auzotik kanporatzera hel daitekeen fenomeno. Etxebizitza eta beste zerbitzu batzuk lokalei zuzenduak egotetik, klase aberatsago eta turistei bideratuta egotera pasa daitezke. Bilboren kasuan autore batzuk defendatzen duten arren, azpimarragarria da aztergai honen egoera, gutxi ikertua izan baita edo ez baitago lan zabalik hau gertatu dela frogatzea helburu duenik. Honen atzean egon liteke hiri kulturalak etengabe bilatuko duen irudi positiboa, horrelako gertaera sozialek hiriaren eta museoaren irudia zikindu dezakete eta, gentrifikazioa gertatzen dela frogatuko balitz.

Kulturaren erabilera honek ekosistema anitz eta aberatsaren ahultzea eragiten du, eredu zaurgarrienak prekarietatean garatzeko beharrera bultzatuz, eta hiri ezberdinetan erreproduzitu daitekeen eredua indartuz. Era berean, produkzio eta agente kulturalen homogeneizazioa gertatzen da, batez ere, klase sortzailearen lan baldintzak eta harremanak okertu dituen, perfilek eta azken emaitza artistikoek eredu estandarizatu horretan sartzeko parametroak bete beharko baitituzte, artearen definizio estu batera egokituz.

Horregatik, Guggenheimak, batez ere helburu ekonomikoak dituen proiektua izanda, euskal artistekin duen harreman ez-parekatsua erakusten du, non artistek museoan sartzeko internazionalak izateaz gain, haien irizpideen ustetan errentagarriak izan behar diren, ahaztu gabe Estatu Batuetatik datorren programa dela. Ekosistema kulturala desorekatzen laguntzen duenez, antolatzeko eredu ezberdinak eta instituzioetatik at dauden modeloak sustatzeak onura handiak ekarriko lituzte. Zuzenean klase sortzaileak nabaritu lukeen hobetzea, askatasun gehiagorekin jarduteko aukera izanik, eta testuingurutik jaiotako ekimenak liratekenez, baita publiko lokalak ere, haiei zuzenduriko eta onura soziala ekarriko luketen ereduak suposatuz.

Ezin ukatu daitezke museoak egin dituen ekarpenak, baina aztertu bezala alde batera utzi diren arazoak ere ekarri ditu. Honen aurrean, beste proiektu mota batek izan zitzakeen ondorioak zeintzuk diren pentsa daiteke, edota museoaren planteamendu berri batekin izan ditzaken hobekuntzak. Hauen artean museoak artearen barruan dituen funtzioen inguruan, erakusketetaz gain, beste jardueri pisu gehiago ematea eskatu ahalko litzateke. Adibidez, mota ezberdinetako eta artista lokalak internazionalekin lotzen dituen proiektu artistikoak sustatzea, gero museoaren egoitza ezberdinetan erakutsi daitezkeenak. Horrela, artisten arteko hartu-eman interesgarriak sor daitezke, erakusketak ekartzen duen diru sarrerari guztiz uko egin gabe. Hala ere, argi dago definizio zabalago baten barnean ere arte eredu jakin bat indartuko litzatekeela. Bestetik, Eusko Jaurlaritzak bezalako instituzioek kultura eredu ezberdinak sustatu beharko lituzkete, klase sortzailea eta panorama artistikoa indartzeko. Nolanahi ere, joera internazionalerako eragin guztiei konponbidea aurkitzea zaila izango litzateke dinamika ekonomikoen kontra joateko.

6. Bibliografia

AGUADO, Itziar. “El efecto barrio y su contestación en Bilbao: Dinámicas urbanas, políticas públicas y movimientos sociales”. In NEL·LO, Oriol (ed.). *Efecto barrio. Segregación residencial, desigualdad social y políticas urbanas en las grandes ciudades ibéricas*. Valentzia: Tirant Humanidades, 2021, 360-384. orr.

ARRIETA, Iñaki, DÍAZ, Iñaki eta VIAU-COURVILLE, Mathieu. “A l’ombra del Guggenheim-Bilbao: legislació i política museística al País Basc”, *Revista d’etnologia de Catalunya*, 42. zk., 2017, 88-102. orr.

AZÚA, Jon. “El Guggenheim Bilbao: Estrategias “coopetitivas” para los nuevos espacios cultural-económicos”. In: GUASCH, Anna Maria eta ZULAIKA, Joseba ed.. *Aprendiendo del Guggenheim Bilbao*. Madril: Akal, 2007, 76-99. orr.

BARCENILLA, Haizea. “Kultur politikak: paradigma aldaketa?”, *Jakin*, 215-216. zk., 2016, 29-45. orr.

BEASCOECHEA, José María. “Jerarquización social del espacio urbano en el Bilbao de la industrialización”, *Scripta Nova*, 7. zk., 2003, 1-16. orr.

ESTEBAN, Iñaki. *El Efecto Guggenheim. Del espacio basura al ornamento*. Bartzelona: Editorial Anagrama. 2007.

FERNÁNDEZ, María Dolores eta AGUIRREGOITIA, Ainhoa. “La cultura como inversión turística. Una reflexión a propósito del Guggenheim Bilbao”, *TURyDES*, 4. lib., 11. zk., 2011, 1-12. orr..

https://web.archive.org/web/20180410174950id_/http://www.eumed.net/rev/turydes/11/fpam.pdf (kontsulta data 2022/05/22).

GONZÁLEZ, Eduardo ed.. *La consolidación de la metrópoli de la Ría de Bilbao. Vol. I. Segunda industrialización, inmigración y capital humano*. Bilbo: Fundación BBVA, 2009.

GONZÁLEZ, Eduardo ed.. *La consolidación de la metrópoli de la Ría de Bilbao. Vol. II. Infraestructuras, espacio y recursos*. Bilbo: Fundación BBVA, 2009.

GUASCH, Anna Maria. “Museos globales *versus* artistas locales. Paradojas de la identidad entre lo global y lo local”. In: GUASCH, Anna Maria eta ZULAIKA, Joseba ed.. *Aprendiendo del Guggenheim Bilbao*. Madril: Akal, 2007, 192-212. orr.

GUASCH, Anna Maria eta ZULAIKA, Joseba. “Aprendiendo del Guggenheim Bilbao. El museo como instrumento cultural”. In: GUASCH, Anna Maria eta ZULAIKA, Joseba ed.. *Aprendiendo del Guggenheim Bilbao*. Madril: Akal, 2007, 9-18. orr.

GUILBAUT, Serge. “Una noche en Bilbao: ¿El Guggenheim como un nuevo Edsel* cultural?”. In: GUASCH, Anna Maria eta ZULAIKA, Joseba ed.. *Aprendiendo del Guggenheim Bilbao*. Madril: Akal, 2007, 137-152. orr.

HAACKE, Hans. “El Museo Guggenheim: Un plan de negocios”. In: GUASCH, Anna Maria eta ZULAIKA, Joseba ed.. *Aprendiendo del Guggenheim Bilbao*. Madril: Akal, 2007, 117-128. orr.

LANGE-VALDÉS, Carlos. “La arquitectura como dispositivo de regeneración urbana: 20 años del Museo Guggenheim Bilbao”, *Bitácora*, 28, 2018, 115-123. orr.

LARRINAGA, Carlos. “Regeneración urbanística y nuevas opciones turísticas de las ciudades post-industriales: el caso de Bilbao”, *TST*, 21. zk., 2011, 56-83. orr.

SÁNCHEZ, Oihane. “Análisis de la producción y la programación en las prácticas artísticas contemporáneas; en busca de una producción sostenible en la CAV de las políticas culturales basadas en la idea de monocultivo a la diversidad de formatos híbridos”. *ADDI*, 2020. <https://addi.ehu.es/handle/10810/50429> (kontsulta data 2022/05/19).

VIDARTE, Juan Ignacio. “El Guggenheim Bilbao Museoa”, *Bidebarrieta: Revista de humanidades y ciencias sociales de Bilbao*, 6. zk., 2000, 35-42. orr.

ZULAIKA, Joseba. “Bilbao deseada: El malestar de la “krensificación” del museo”. In: GUASCH, Anna Maria eta ZULAIKA, Joseba ed.. *Aprendiendo del Guggenheim Bilbao*. Madril: Akal, 2007, 153-176. orr.

6.1. Hemeroteka eta webgrafia

“Erakusketak”. *Guggenheim Bilbao Museoa*.
<https://www.guggenheim-bilbao.eus/eu/erakusketak/aurrekoak> (kontsultatutako data 2022/05/22).

GÓMEZ, Luis. “Los hoteleros de Bilbao piden que abran las tiendas en domingo: “Los turistas deambulan sin poder comprar””. *El Correo*, 2022-03-06.
<https://www.elcorreo.com/bizkaia/turistas-deambulan-domingos-20220306202524-nt.html>